

Lituaniako berri

TXILLARDEGI



HEMENTXE daukat, neure begien aurrean, Lituaniako Parlamentuak 1989ko Azaroaren 3an (orain dela urte t'erdi, beraz) ontzat eman zuen «XI-3329» legea.

Lituaniar hirirtasuna legezatzeko aldarrikatu zen.

Eta hona hemen 15. Artikulua. Honek lituaniar eskubide politikoak izateko arauak eman zituen: «Lituaniar Hirirtasuna lortzeko baldintzak» bereziki.

Hitzez hitz euskaratuko ditu (ingelesez, jakina):

- 1.- Lituaniar hizkuntza ezagutzea;
- 2.- Azkeneko hamar urte horretan Lituaniako Errepublikan egoitza iraunkorra izatea;
- 3.- Enplegu iraunkor bat izatea bertan, edo-ta irabazpide legezko bat...

Baldintza horiek betez gero, Lituaniarekiko leialtasuna zin egin behar da (17. Art.), eta Lituaniaren Konstituzioa errespetatu. Ohar garrantzitsu bat: Lituaniako Errepublikaren Konstituzioa bete behar da. Sobietar Batasunaren legetasuna aipatu ere ez da egiten. ESSBan ofizialki ontzat emana dago Autodeterminazio Eskubidea. Baina Moskuk ez du lituaniarren lege hori onartu. Lehendabizi blokada ekonomikoak ezarri zien hiru Errepublika baltikarrei. Hau aski ez izanik, tankeak baliatuz, eta hilak eta zaurituak eraginez, «ordenua» inposatu zuen Lietuvan joan den Ur-tarilean.

Bego, beraz, apur hau bere horretan.



Bush eta Quayle

Berriro azkenean, espainiarrek, gobernatzaile koldarren arrazoiagatik, Historiaren atzeko aurrera goaz. Estatu Batuetan jaitzi egin da murrizketa federalen maila energia nuklearrera.

(...)


Kolpe horregatik ere, arrazionaltasun ekonomikoaren moratoria bermatu dena, ez da normala demokrazietan, herri-aurrezpena eta zergapekoari behin eta berriro zigorrak ezartzea; eta sektore publikoak jarrera estrategikoak hartu arren Espainiako sistema elektrikoan, oraindik norbaitek esango du PSOEk eskuinaren politika ekonomiko egiten duela. Ez eskuinekoa, ez nazio beharizanena. Konpentsa gaitzen, gutxienez, ondorioen argitasunarekin.

EDITORIALA / 1991-V-6



Gatazka

Gatazka piztuta zegoen lehendakariak XXXII kongresuan par-



GALLEGO & REY / DIARIO 16 / 91-V-6

tiduarekiko Gobernu autonomiaren teoria asmatu zuenean. Porrotera kondenatutako teoria. Benetan, Gobernu guztiek gairiditu behar dute partiduaren esparrua. Baina pentsaezina da (eta gehiago gurea bezalako hauteskunde sistema batean) partiduak benetako babesa eman gabe gobernatzea. Gonzalez konponbidea guerrerismoari aurre egiteko beldurarenkin eman zen, agian azken hau berri desafiatzera ausartuko ez zela pentsatzen. Baina, seguraski bi irtenbide baino ez daude: edo Felipe Gonzalezek bere autoritatea ezartzen du guerrerismoaren gainetik, edo zatiketa nahitaezkoa izango da. Hirugarren konponbiderik ere egongo litzateke, baina ez da agertzen Felipismoaren postula-

tuetan: partiduaren antolaketa tendentzietan. Agian Gonzalezek pentsatuko du denbora bere alde dagoela. Pentsatu beharko luke gainera, krisi horiek itzulezineko punturik ere badutela. Eta agian ez da egongo oso urruti.

JOSEP RAMONEDA / 1991-V-6



Epailearen aurka deklaratzeko betebeharrak konstituzionala

Gaur egun, Espainian indarrean dagoen Konstituzioa aurrerakoia

eta demokratikoa izan arren, gure legegileek, testu errespetagarri hori «aggiornato» ordez, konstituzio manuetara egokituz, edo beti ere, pribilegio horiek murriztasunarekin interpretatzen ahalbideratuz, kontrako bidetik doaz. Tuna garaiz igarota, oraindik jauntxokeria handiak den jarrera hartu nahi dute, eta modu horretan, pribilegio hori ia bi mila «autoritaterengan» hurbildu nahi dute. Espainiako demokrazia, Konstituzioa egon arren, urrunduta dago Europako beste herrietatik, eta «bi abiadurako demokrazia bihurtzeko joera du»: bata suspergarria klase politikoa erantzut, eta bestea errena hilkorragaren beste guztiontzat.

JORGE DE ESTEBAN / 1991-V-6

Lehena

IÑAKI URIA



INTEGRAZIOA hitzak definitzen du —ezer definitu gabe— EAEko Jauriaritzak azken bi legealdi hauetan aurrera daraman kultur politika. Ez da dudarik hitza modan dagoela. Espainia European integratu behar da. Euskal Herria Espainian, Frantzia eta European integratu behar da.

Etorikin eta eraldunak euskararen herrian, Euskal Herrian, integratu behar ditugula uste dugunok badugu zer pentsatu eta zer egin.

EAEko Kultur Kontseilariak euskarazko egunkari batek, ahal den onena eginda ere, «sekula» lehenengo egunkari izaterik ez daukala dioenean, askotxo ari da esaten bera gobernuan dagoen bitartean euskaraz daukan etorkizunaz. Egunkari batek euskaraz sekula lortuko ez badu lehena izatea, euskal telebista batek ere lortzen ez badu lehena izatea, liburu batek, kanta batek... lortzen ez badute lehena izaterik... akabo! «Ia guriak egin du» kantatzeko moduan gaude.

Joseba Arregi zitakeriak itsututa ez balego ikusiko luke EGUNKARIAK dituen 15.000 erostleak askorentzat lehen egunkaria dela. EAEko Jauriaritzako 15 goi-kargu (% 10) euskaraz ikasten hasiak direla eta Aizarnazabalen beste aurrerapauso bat eman dutela euskaraz «lehena» nahi duten Udalerriek.

Helburua zaila dela. Jakina. Askoz ere errazago erdietsiko litzateke etsi ez dion Kultur Kontseilari bat bagenu.

ZUZENDARIARI

Gure politikarien zabarkeriaz bi hitz

Joan zen ostiralean, Apirilaren 26an, «*Buzoekiko udal politika*» izenburupean, Zorrotxan mahainguru bat egin zen. Bertara, antolatzaileak zen Izenbarik mintzaldiak, alderdi politiko guztiei egin zien gonbidapena. Helburua bikoitza zen: batetik, inongo bazterkeriak gabe, talde politiko abertzale eta ez abertzale oro, euskaraz hutszeko eztabaida saio batetan biltzea. Bestetik, gure auzuneari dagozkion premia konkretuei ideologia desberdinen arabera konponbidea eskaini. Aitoritu behar, oster, inuxente samar jakotua genuela, pentsatu bait genuen holakorik, gure herrian, onez atera zitekeela. Usteak ustel, ordea. Hona bada, labur eta gordin, gertatutakoaren kronika:

PSOEn aldetik, eta euskaldun ezaren kausaz nonbait, goiz-goiztik jaso genuen ezetza. Eskertzekoa, hala ere: beste gauzak argi eta garbi haseratik bertatik...

Besteekin hartu genituen neke eta lanak. Alferretan hartu ere, gerora ikusi zen bezala. EAJrekin, bi hilabete eta gehiagoz hainbat hartueman, elkar-ikuste eta harremanen ondoan, noiz eta 26an goizez hain justu, eta emandako hitza lotsagabekiro janda, adierazi digute «ez dutela itxurazko ikusten saio irekietan parte hartzerik». Ederki eman ere! —maiteago al dituzu, Jon, bakar-saioak?—

CDS eta Ezker Batuaz denaz bezainbatean, antzera. Beraiengana jo, «gu beti euskaraz laguntzearen alde» betiereko leloa ezpainatu, ele eder franko erabili eta behar den garaian pott! 25a heldu, etorri behar zutenek beste zenbait konpromize hartu eta Madrilera behar. Arantzeta eta Roberto, Roberto eta Arantzeta, eskutik alkatuta ote?, nola liteke? Eta jakina, azken uneko premiak direla eta, ezin aurkitu ordezkorik. Hau bai eskergaitzotz ederra!

PPri gagozkiola, zer esan liteke? Saioa hasteko ordu batzuk falta zirelarik, oraindik-orain etortzekoak zirela baieztatu ziguten. Halarik ere, PPkiderik ez zen hurbildu —Karlos, bidean galdu

ote zinen?—. Agindua bat, eta emana bi; aginduarekin konpon hadi...

Ezin amaitu, ordea EA, EE eta HBren jarrera ireki eta euskaltzalea aipatu gabe —Bejondizuela, Angel, Josune eta Josu, emandako hitzari heldu eta eusten jakiteagatik—. Dena ezin zitekeen belar ziztririk izan euskal politikarien sorroan!

IZENBARIK MINTZATZALEA ZORROTZA

PERTSONAIA



Zabale anaiak

Anoetako Belodromoan milaka trikitizale txapelketako giro bikaina bazen zerbaiten seinale besteek ere ondo jo zuten inork ez du egin kale asteburuko jardungatik mila zorian Zabale.

ARANTZAZU LOIDI

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idatzea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburru beharria izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1, ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarie:

JOXE MIEL ZUMALABEA

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRRETA

IÑAKI URIA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90